

## DESCARTESEN ITZALA GILLES DELEUZEREN GOGAMENEAN

Irak. Dr. Fito Rodríguez Bornaetxea

Rene Descartes IV. mendeurrena ospatzen den honetan filosofo frantziarraren ekarpenen garrantziaz ohartzea ez da beharrezkoa izaten. Aitzitik, honelako efemerideek eraginakoaren arabera, askoz zuhurragoa dirudi tenore honetan bere gogamenaren filosofia errelatibizatzen has-tea edo, bestela, lotsagabeko apologiaren bidelik ibiltzeko arriskuan egongo ginateke. Hori da, asmoz behintzat, lerro xume hauen nahia. Hau da, denboraren jarioak ekarritako Gilles Deleuze-ren heriotzaz baliatuz (edota, zehazkiago esanda, bere suizidioa aitzaki), berak kudeatutako Descartes aurkakko filosofiaz aritu ahal izatea, (bere hitzetan, "fonder une philosophie post-cartésienne"<sup>1</sup>). Izan ere, honetaz arduratu naiz aspaldidanik zeren Descartes itzala mendebaldar gogamenarean luzea bada ere, filosofo frantziarren artean erabatekoa izan dugu... Deleuzek arrazionalismo klasikoaren epistemeari egindako kritika gizarteratu bitarean, ene aburuz.<sup>2</sup>

Gilles Deleuzek ez du bere pentsamendu garatzerakoan inolako tranparik egin. Aitzitik, bere bizitza osoan zehar Spinozaren ikerketan sakontzen saiatu baldin bada, etikoki filosofia-ren salmentan ohikoak bihurtu diren errazkeria eta tribalizazioa (eta honen azalpen legitima-tua den akademizismo hutsa bera) salatzeko izan da. Beraz, ez dugu joku maltzurrik aurkituko haren izkribuetan.

Bere jokoa, ordean, deskarteatzean datza. Hau da, gertakizunaren garrantzia azpimarratuz orokortasunaren filosofia baztertzen joan nahi izatea. Horrela, Descartes zena alboratuz, Pascal, Hume, Kant, Nietzsche, Sartre edo Bergsonen arrastoak segitzen nahiago izan du Platon, Hegel edota bere lankide eta laguna zen Chateletenak baino.<sup>3</sup> Haiak dira, bada, ez joku ezta tranparik ere, bere joko filosofikoaren kartak... baina argiago gera dadin, hona hemen bere idazkeraren azalpena kartaz-karta.

1. Gertakizunaren indarra berreskuratu nahian, bai neopositibismoa, bai fenomenologia, baita historiaren filosofia ere kritikatzeko ditu.<sup>4</sup> Lehenengoak "mundutik at dagoenaz ezin omen dela ezer esan" dioenean, gertakizuna erreferentzia hutsa bihurtu nahi izaten du gerta-kizuna dena galduz. Bigarrenak, berriz, esanahia kontzientziaren barruan kokatzerakoan, gertatu den hori galtzen du. Hirugarrenak, finean, bere orduearen arabera ulertu nahi izango du gertakizunak berak duen berezkotasuna eta hausturako joera baztertuz. Izan ere, aurretik egina dagoen pentsamenduaz aske, gertatzen denaz pentsatu ahal izateko proposamena dugu (orain aldiko pentsamendua, hain zuzen) Deleuzeren pentsamenduaren muina.<sup>5</sup>

2. Hala ere, bai Pascalek baita Nietzschek proposatzen zutenaz haratago, ezin da esan bere aldarrikapena sinesmenaren aldeko postura denik. Aipaturiko bi pentsalariekin batera, eta Foucaultek jorratutako bideari jarraituz, filosofiarren zeregina egia bilatzea den sinesmen hori etengabe kritikatu du baina, azkenik, eta goian aipaturikoen kontra, bizitzaren zentzua (ez esanahia!) bilatzen ahaleginduko da.

<sup>1</sup> Deleuze, G. *Spinoza et le problème de l'expression*. Minuit. 1968. 311 or.

<sup>2</sup> Rodríguez Bornaetxea, F. "Deleuzen Joko Filosofikoaz" in *IIIKA*, 1995eko abenduan. 52 orr.

<sup>3</sup> Deleuze, G. *Péricles et Verdi, La philosophie de François Chatelet*, Minuit.

<sup>4</sup> Rodríguez Bornaetxea, F. "The Phenomenology in the Michel Foucault's work", in *Congreso Mundial de Fenomenologiako aktetan* (Santiago de Compostela, 1988ko Irailaren 26tik Urriaren 1)

<sup>5</sup> Rodríguez Bornaetxea, F. eta bestea. *Aintzamenaren eta Errealaren*. U.E.U. 1984.

3. Adierazpena ikertzea eta aldarrikatzea dugu orain aldiko pentsamenduaren lana. Foucaultentzat “épistémé” zena “adierazpena” da Deleuzentzat. Izan ere, eta ohiko tribializazioak hedatu duenaz erabat aparte, ezin esan bi filosofo hauek antzerako pentsamendua zutenik osagarriak ziren filosofiak lantzen zituztela baizik. Askotan kontrajarriak, gehienetan, esan bezala, bategarriak nahiz et, hain zuzen, bakoitzak bere arloak jorratu eta bere kontzeptuak landu.<sup>6</sup>

4. Adierazpena, kontzeptu bezala, Spinozaren ikerketatik azalarazten du Deleuzek. Leibnizek proposatu zuenarekiko bereiztu nahian, adierazpenean ezin da bilatu inolako eduki unibertsalik.

Spinozarentzat, adierazpena ekoizpena da ez errepresentazioa. Horregatik, ezaguera ez da “izpirituan” isladatzen duen prozedura hori, adimen irudia eta guztiz, gauzen adierazpenak geureganatzea baizik. Ildo honetatik hitz egin daiteke Descartes eta geroko filosofiaz. Deluzi esker, hain zuzen.

Gilles Deleuzek ez du tranparik egin. Bere filosofia, moda zein akademizismoetatik urrun, orain aldiko pentsamenduaren aldeko apustua izan da.<sup>7</sup> Horrela, bada, eskuratu nahi izan dugu hemendik, zeren Deleuzekin batera, pentsatzea merezi du berriro ere.

---

<sup>6</sup> Macherey, P. “Gilles Deleuze: Penser dans Spinoza” in *Le Magazine Littéraire*. n°257. 1988. 42 or.

<sup>7</sup> Martinez Martinez, F. *Ontologia y Diferencia: La filosofía de Gilles Deleuze*.